


## Ikerketa, Garapena, Berrikuntza:
### MODA ALA BEHARRA

***ZarautzOn***-ek datorren astean gai berri bat proposatzen dizue. Saio honetan ikerketaz, garapenaz, berrikuntzaz arituko gara **Manu Olariagaren** laguntzaz.

***Testuingurua***

Non gastatu behar dugu gure dirua, **aitonaren erretiroko pentsioan ala Aitziberren doktoretza bekan?**

Galdera honek duda asko ditu bere baitan. Ez dauka erantzun errazik baina gizarte aurreratu eta bidezko batek bi beharrak asetu beharko lituzke. Diru publikoen banaketa ez da lan xamurra baina honi buruzko eztabaida ez da foro honen helburua, beste nonbait begiratzea baizik. Zer egin beharko genuke gizarte kideok, diru-sarrera gehiago sortzeko gizartearen behar anitzak asetu asmoz?

Aurkezpen honetan gure Herrialdeak **lehiakortasuna** hobetzeko lana egin behar duela proposatuko dugu, eta horretarako, geurea den euskal gizarte aurreratu eta "garesti" honek, ezagutzean oinarrituriko ekonomiaren garapena izan behar du ardatz.

***Hitzaldiak proposatzen duena***

- **I+G+B**: Zertaz ari gara honetaz hitz egiten dugunean? Zein da helburua? Ezagutzan oinarritzen den ekonomia, jarraitutako helburuak (Euskadi eta beste eskualdetako datuak).
- **Lehiakortasuna** eta **Berrikuntza** gizarte garapenerako faktore gisara; bien arteko harremanak. Horiei buruzko datu eta gakoak Euskadin non gauden ulertarazteko (datuak, rankingak, erreferentziatzat har daitezkeen antzeko eskualdeen nondik-norakoak).
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistema**ren egitura eta gastuak Euskadin (Sistemaren eskema, inbertsio publiko eta pribatua, beste eskualdeen datuak).
- Zer espero dezakegu **Sistemaren Eragile** bakoitzarengandik? Sistemaren alde positibo eta negatiboak.

**#lehiakortasuna #berrikuntza #ikerketa #modaalabeharra**



***Manu Olariaga.*** Donostiako Ingeniari Industrialen Goi Eskolan (Nafarroako Unibertsitatea), ingeniari mekaniko bezala lizentziatua. Ikerketa eta enpresa kudeaketari loturiko hainbat ikasketa ere egin ditu. Gaur egun Sarrikon, Ekonomia eta Enpresan, doktoretza tesian ari da.

Industria sektoreko gipuzkoar enpresa ezberdinetan aritu da, estrategia planifikazioan aholkulari eta enpresa kanpoko aholkulari gisa ere aritu da denbora luzez. (Interim Management). Azken aldian Tecnalia Research Innovation, berrikuntza estrategian saileko zuzendari, Tecnalia Kolonbia eta Tecnalia R&I buru batzarreko kide.

Asteartea, Apirilak 17, arratsaldeko 7.30ean Zarauzko Antoniano Aretoan